INTERESESAK	DIRU GEHIAGO BEHAR DUT SEMEAK KANPOAN IKASTEKO.	EZ DUT NAHI IGOERA AURREKARI BIHURTZEA.

Ikus dezakezunez, Jon –dio Andonik–, normalean jarreretatik saiatzen gara akordioetara iristen (igoera nahi dut; bada ez), baina maila horretan ezinezkoa da, ez dagoelako negoziatzeko tarterik. Edozein konponbidetan, nahitaez, planteamendu bat besteari gailendu behar zaio, eta horrek enfrontamendu handia eragiten du.



Beharrezkoa da interesen eszenatokitantz jotzeko gaitasuna izatea –horretarako negoziatioari buruz jakitea eta praktika pixka bat baino ez da behar–, eta eskaerak bateragarriak izan daitezkeen gune bat sortzea lortuko dugu –interesak–, honela:



	KEPA	ENPRESA
INTERESESAK	DIRU GEHIAGO BEHAR DUT SEMEAK KANPOAN IKASTEKO.	EZ DUT NAHI IGOERA AURREKARI BIHURTZEA.
AUKERAK	KATEGORIA IGO. IGOERA ADOSTU ETA OTSAILERA ARTE EZ GAUZATU. APARTE ORDAINDUKO DEN LAN ESTRA BAT EMAN. AURRERAKIN BAT EMAN. SEMEARENTZAKO BEKA BAT EMAN.	

Aukerak adostasunera, konponbidera iristeko aukerak dira. Ez du esan nahi ideia horiek guztiak egin ahal izango direla, baina seguru horietakoren bat (edo batzuen konbinazioa) praktikan jar daitekeela.

HORREKIN, BI ALDEAK ASEBETETA GERATZEN DIRA, IZAN ERE, EGOKI KUDEATUTAKO GATAZKEK ALDERDI POSITIBO UGARI DUTE (MORALES F. ETA YUBERO, 1999).

- Egoki kudeatuta, identitate pertsonala zein taldearena sustatzen du, taldean konpontzen bada eta emaitza asegarria bada (hori da gakoa).
- Egoki kudeatuta, bideak zabaltzen laguntzen du eta, batez ere, komunikazio estilo eraginkorrek eta iraunkorrek ezartzen.
- Eta, egoki kudeatuta, aldeen arteko konfiantza sustatzen du, desberdintasunak nabarmendu beharrean antzekotasunak nabarmen-tzen baitira.
- Ongi kudeatuta, aldaketa pertsonal eta sozialerako motorra da. Egin beharreko aldaketak egiten laguntzen du, berrikuntzak, etab.



ASTEAZKENEKO ONDORIOAK:

Kontuan hartuta erakundeentzat zer-nolako ondorio positibo eta beharrezkoak dituen, ez da operatiboa hori baztertzen saiatzea. Gakoa da egoki kudeatzen ikastea.

Negoiazteko estilo hau Negoziazio Eraginkorrerako Harvard programan oinarrituta dago (Fisher, 1997), eta erakunde barruko gaitasun gisa inplementatu behar litzateke. Lan egiteko ohiko tresna bihurtu behar litzateke, lankidetzazko inguruneak sortzeko eta harreman harmoniatsuak mantentzeko.




Al Ar Az Og Or

IV. KAPITULUA:

OSTEGUNA.
ASTE HONEK ITXURA
ONA DU.
GATAZKA ULERTU
ETA KONPONTZEN IKASI
ETA GERO,
ERAKUNDEAREN
BARRUAN GATAZKAK
KONPONTZEKO
PROZEDURA BAT
SORTUKO DUGU





IV. KAPITULUA: OSTEGUNA. ASTE HONEK ITXURA ONA DU. GATAZKA ULERTU ETA KONPONTZEN IKASI ETA GERO, ERAKUNDEAREN BARRUAN GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURA BAT SORTUKO DUGU

Gaur Jonek honi egin beharko dio aurre

HIRUGARREN PAUSOA: ETA HORI DA KOOPERATIBA BARRUAN GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURA BAT NOLA EZARTZEN DEN,


horretarako, Andonik eman dizkion dokumentuak aztertu ditu, bertan esaten denez:

Erakundeak gero eta arduratuago daude kalitate hobetzeari dagokionez. Horretarako, enpresek ohiko jarduerak egiteko prozedurak erabiltzen dituzte, lana behin eta berriro asmatzen ez aritzeko. Hortik aurrera, jarduera hobetzeko kezka ezartzen da.

Egoera horiek aprobe txatu egin daitezke gatazkei erantzuteko prozedurak garatzeko, eta horien barruan jaso dira:

- KOOPERATIBAN GERTATZEN DIREN EGOERAK, ERANTZUN BEHARREKO GATAZKATZAT HAR DAITEZKEENAK.
- ZERGATIK GERTATZEN DIREN, ZER ALDATU BEHAR LITZATEKEEN ULERTZEA.
- “BIDE” BAT MARKATZEA, ERAKUTSIKO DUENA NOR INFORMATU BEHAR DEN, NOLA ETA NOIZ, ETA NOLAKO ERANTZUNAK EMAN BEHAR DIREN.
- GAIARI EMAN BEHAR ZAIZKION ONDORIO POSIBLEAK.

Horrekin, erakundeen barruan gatazkek konpontzearen balioa agerian jartzen da, eta sentsibilizatu eta gatazkei eusteko jarduerak arautzea lortzen da, hau da, langileen esku liskarrei erantzuteko formula eraginkor bat jartzen da, eta marmarrak saihesten.



Prozedura hori egiteko lan talde bat sortu behar da, ahal dela, erakunde osoko arlo guztien ordezkariak izango dituena.

EGIA ESAN, JON DAGOENENKO OSO GUSTURA DABIL AU-
RRE EGIN BEHARREKO ERRONKAREKIN: BERE ERAKUN-
DEKO GATAZKAK ERAGINKORTASUNEZ GOBERNAT-
ZEA. HORREKIN BADAKI PERTSONEN ERRENDIMENDUA
HOBETU AHAL IZANGO DELA, BATZUETAN %30ERAINO,
ETA HORRI OSO EGOKI DERITZO.

Baina Andonik esan dio baita ere zenbait gatazka ezin direla erakundearen barruan gestionatu. Horretarako profesionalak daude, gatazkak ulertu, erantzun eta konpontzen dituztenak, inplikaturik dauden pertsona guztien partaidetzarekin: bitartekariak dira.



OSTEGUNEKO ONDORIOAK:

Aukera ugari dago erakundeetan gatazkari buruz lan egiteko. Ulertu eta kudeatzeaz gain, gatazkak bideratzeko prozedura bat landu dezakegu, ondorio negatiboak saihesteko eta positiboak bultzatzeko.

Halere, ekintza gehiago egin daitezke, esaterako:

- Gatazkak konpontzeko lana barruko Erantzukizun Sozial korporatiborantz bideratzea, izan ere, gatazken kudeaketa egokiak lagundu egingo die erakundeei barne Erantzukizun Sozial korporati-boaren alderdi funtsezkoetako bat hobetzen: pertsonen kudeaketa.
- Gainera, erakundeetan egon daitezkeen gatazka zehatz eta konplexuei buruzko diagnostikoak egin ahal izango dira (adibidez, absentismo maila handia, erakundearen jardura egokia galarazten duten sailen arteko edo sail barruko enfrentamenduak...).




V. KAPITULUA:

OSTIRALA.
BITARTEKARITZA
PROZESUA

Al Ar Az Og Or





V. KAPITULUA: OSTIRALA. BITARTEKARITZA PROZESUA

▪ **BITARTEKARITZA** GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURA BAT DA, ZEINEAN HIRUGARREN PERTSONA BATEK, ALDEEI ETA GAIARI BURUZ INPARTZIALA DENAK, LAGUNDU EGITEN DIEN BI ALDEEK ONARTUKO DUTEN KONPONBIDE BATERA IRISTEN.

▪ Esku hartzen duen hirugarren pertsonak –bitartekaria– aldeei laguntzen die garatzen ari diren negoziazio prozesuan, baina aldeei uzten die konponbidea erabakitzen. Inola ere ez du irtenbiderik proposatzen edo erabakitzen.

▪ Kooperatibetan bitartekaritza erabiltzearen helburua da **ELKARREKIN ERABAKITAKO AKORDIOAK BILATZEA**, gatazka hain bizia delako, komunikazioa ia ezinezkoa gertatzen denean.



▪ Edozein pertsona ezin da bitartekari izan. Hasteko, guxtienez oinarrizko diplomatura edo lizentziatura behar da, baina funtsezkoa da baita ere gatazken kudeaketan eta bitartekaritzan prestakuntza egokia izatea, eta zein parametro etikoren arabera egin daitekeen jakitea. Euskal Autonomia Erkidegoan Bitartekaritza Lege bat dago, familiaren eremuari buruzkoa bada ere.

▪ Bitartekaritza lana kooperatibarentzako baliabidea izan dadin, funtsezkoa da aldeetako bakar batentzat ere arriskurik ez egoteko **KONPROMISOA** eta **SEGURTASUNA** egotea. Hau da, ez dela errepresaliarik izango gatazkak konpontzeko bide hori erabiltzeagatik. Garrantzitsua da bermatzea aldeek gatazkari aurre egiteko edo konpontzeko behar duten informazioa izango dutela, eta kanpoko aholkularitza jaso ahal izango dutela, gaiak hori eskatzen badu.

Kokapena kanpokoan izan daiteke. Kasu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatibek BITARTUK eskaintzen duen kanpo bitartekaritza erabil dezakete. Baina bitartekaritza zerbitzua kooperatiben barruan ere koka daiteke. Helburua da gatazkak garaiz detektatzea –diagnostikatzea– eta, jakina, gertatzen direnean bitartekaritza egitea. Funtsezkoa da erakundeko lerro hierarkikoei buruzko neutraltasun eta independentzi irudia sortzea eta, batez ere, ematen den informazioa konfidentziala izango dela eta ez dela beste helburu batzuetarako erabiliko bermatzea. Bitartuk, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatibetan bitartekaritza egiteko barne sistemak ezartzeko aukera ere ematen du.




BITARTEKARITZAREN PROZEDURA PRINTZIBIO HAUEKIN ARAUTZEN DA:

BORONDATEZKOTASUNA. Ezin da aldeetako inor bitartekaritza prozesu bati atxikitzea behartu. Prozesu bat hasita dagoenean ere, bertan behera uztea erabaki daiteke, planteatu ziren itxaropenak ez direla betetzen ari jotzen bada.

KONFIDENTZIALTASUNA. Bertan esaten den guztia konfidentziasunez tratatuko dela esan nahi du. Horregatik, pertsona bitartekaria ezin da epaiketara deitu aldeetako baten alde edo kontra deklaratzeko.

ERRESPECTUA. Bitartekaritzaren prozeduran ez da errespetu faltarik onartzen, gatazkak beharrik gabe areagotzea galarazteko. Errespetuak esan nahi du baita ere ez dela hitz egiteko txanda etengo, ahal den heinean.



INPARTZIALTASUNA. Pertsona bitartekariak ezingo dio alde bati lagundu bestearen kaltetan, eta saiatuko da alde bati bestearen mesedetan ari dela pentsaraziko dion iruzkinik edo adierazpenik ez egiten.

IZAERA PRESENTZIALA. Gatazkan dauden aldeek zuzenean parte hartu beharuko dute. Taldea bada, ordezkariaren baten bidez joan ahal izango da.


LEGEA EZ URRATZEA. Bitartekaritza ezin da erabili legezko printzipioak urratzeko; horrenbestez, ezin da legeak beste erakunde bati esleitu dizkion gaitan jardun, eta ezin da nabarmenki ilegalak diren akordioetara iritsi.

FEDE ONAREN PRINTZPIOA. Bitartekaritza soilik erabiliko da alde guztientzat mesedegarriak izango diren akordioak lortzeko.

MALGUTASUNA. Ez dauka prozedura zurrun bat, hau da, aldeen ezaugarriei eta horien beharrei egokituko zaie.

BITARTEKARITZA PROZESUAK HAINBAT FASE DITU, FASE BAKOITZAK HELBURU BAT, ETA BEHARREZKOA DA DIZIPLINAKO PROFESIONALEK EZAGUTZEN DITUZTEN HAINBAT “TRESNA” ERABILTZEA.






ASTEKO ONDORIOAK:

Astea arazo dezenterekin hasi zen, baina oso interesgarri bihurtu da, Jonek aukera izan baitu ezagutzen ez zuen eremu batean sartzeko.

Jonek asmo sendo batekin amaitua du astea, hau da, bere kooperatiban ager daitezkeen gatazkak ulertzeko eta eraginkortasunez konpontzeko lanean hasi nahi du, eta beharra izan dezaketen pertsonen bere esperientzia kontatu nahi die. Lehenengo aldia izango da, baina astelehena noiz iritsiko zain dago.



BIBLIOGRAFIA



- Echeverria, R. (2003). *La Ontología del Lenguaje*. Santiago de Chile: J.C. Sáez Editores.
- Edwards, P.k. y Scullion, H. (1987). *La organización social del conflicto laboral. control y resistencia en la fábrica*. Madrid: Centro de Publicaciones Ministerio de Trabajo y Seguridad Social.
- Femenia, N. [<http://www.inter-mediacion.com>]
Fecha de consulta: 23/11/2009.
- Fisas, V. (1998). *Cultura de Paz y Gestión de Conflictos*. Barcelona: Icaria, Antrazyt UNESCO.
- Fisher, R. y Ertel, D. (1997). *Obtenga el sí en la práctica. Cómo negociar paso a paso ante cualquier situación*. Barcelona: Gestión 2000 S.A.
- Lederach, J.P. (1994). *Educación para la Paz*. Barcelona: Fontamara.
- Lederach, J.P. (1998). *El abc de la paz y los conflictos. Educación para la paz*. Madrid: Catarata.
- Morales, F. y Yubero, S. (1999). *El grupo y sus conflictos*. Ciudad Real: Universidad de Castilla-La Mancha, Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- Perrow, C. (1993). *Sociología de las Organizaciones*. Madrid: McGraw.
- Rojas, L.(1998). *Las Semillas de la Violencia*. Madrid: Espasa.
- Saner, R. (2003). *El experto Negociador*. Barcelona: Gestión 2000 S.A.

KOOPERATIBEN GATAZKAK ULERTZEA ETA ERANTZUTEA, ASTE BATEAN

EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA. BITARTU.





**KOOPERATIBEN GATAZKAK
ULERTZEA ETA ERANTZUTEA,
ASTE BATEAN**

- **Argitaratzailea:**
Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua. BITARTU.

- **Testuen ©:**
Yolanda Muñoz Hernán (Gizagunea Fundazioa)
M^a Eugenia Ramos Pérez (Gizagunea Fundazioa)

- **Diseinua eta maketazioa:**
Cristina Rubio Montes

- **Argitalpena:**
BITARTU. Euskadiko Kooperatiben. Goren- Kontseilua.

- 2010eko otsaila

Gidaren egilea:

Yolanda Muñoz Hernán
(Gizagune Fundazioa)

M^a Eugenia Ramos Pérez
(Gizagune Fundazioa)

A vertical teal bar with a slight gradient and a subtle shadow effect, positioned on the left side of the page.

AURKIBIDEA



■ Hitzaurrea.....	7
■ I. kapitulua: Astelehena eta, gosaritarako, gatazka dosi handi bat.....	9
■ II. kapitulua: Asteartea. Ikus dezagun ea gatazkek ulertzeko modurik dagoen.....	13
■ III. kapitulua: Asteazkena. Dena ez omen dago galdua. Egoera ulertu eta gero, hori konpontzeko tresnak ere badaude.....	19
■ IV. kapitulua: Osteguna. Aste honek itxura ona du. Gatazka ulertu eta konpontzen ikasi eta gero, erakundearen barruan gatazkek konpontzeko prozedura bat sortuko dugu.....	25
■ V. kapitulua: Ostirala. Bitartekaritza prozesua.....	29
■ Bibliografia.....	37

A vertical teal bar with a slight gradient and a subtle shadow effect, positioned on the left side of the page.

HITZAURREA



- BITARTU Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko zerbitzu bat da, hau da, Gatazkak Konpontzeko Euskal Zerbitzua. Bere eginkizuna, besteak beste, kooperatiben eremuan gerta daitezkeen gatazketan bitartekaritza lanak egitea da. Horretarako, planteatzen diren egoerak bidera ditzaketen hainbat profesional dauzka.
- 2006ko ekainean BITARTUk hitzarmena izenpetu zuen Euskadiko Kooperatiben Konfederazioarekin eta Euskadiko Kooperatiben Federazioarekin, eskaintza zabaltzeko. Eskaintza eguneratzeko arrazoia egiaztapen hau izan da: gaur egungo joerek, kalitatea hobetzeari, taldean lan egiteari eta lan egiterakoan erantzukizuna handitzeari dagokionez, sail bereko edo hainbat sailtako pertsonen arteko harremanak areagotu egiten dituzte, eta tentsio gehiago sortzea eta gatazkak gehiago azaleratzea ekartzen dute. Horregatik, funtsezkotzat jo zen kooperatibekin lankidetzan aritzea, egoera horiei erantzuten laguntzeko.
- Ekimen horretako ekintzetako bat gida hau da, modu atseginean, irakurleak gatazkaren ezagutzara eta hori konpontzeko dauden tresnetara hurbildu nahi dituen.



I. KAPITULUA:

ASTELEHENA ETA,
GOSARITARAKO, GATAZKA
DOSI HANDI BAT

Al **Ar** **Az** **Og** **Or**





I. KAPITULUA: ASTELEHENA ETA, GOSARITARAKO, GATAZKA DOSI HANDI BAT

- Gida honek protagonista bat dauka, JON du izena. Besteak bezalako Kooperatiba bateko arduraduna da. Jon gutako edozein ere izan zitekeen, dauzkan arazoak nahiko arruntak baitira. Ikus dezagun.
- ASTELEHENA DA, GOIZEKO BEDERATZIAK, ETA JON LANERA IRITSI BERRI DA. BADIRUDI TALDEA SASOIAN ETORRI DELA, HAINBAT PERTSONA HASI BAITIRA BEREHALA BULEGOAN SARTU-IRTENAK EGITEN, GERTATZEN ARI DIREN BATEKO ETA BESTEKO EGOEREN BERRI EMATEKO.

%8,3ko absentismo indizea daukagu, eta guztiak gaixotasun arruntagatik dira; badirudi jendea ez dagoela behar bezain mobibatuta eta, edozein egonezinen aurrean, etxean geratzea erabakitzen duela. Horren ondorioz, beharrezkoa izan da produkzioaz eta giza baliabideez arduratzen den pertsonak gaur egitea espero zuen zereginak bertan behera utzi eta bi ordu ematea lana antolatzen saiatzen.

Anek eta Jorgek (produkzio saileko eta sail komertzialeko arduradunak) egundoko sesioa izan dute taldearen bileran, eta hortik aurrera eten egin da eta gainerako gaiak landu gabe geratu dira.

Jakinarazi dizute kooperatibista bat aspaldi dabilela gainerakoei aurre eginez eta, kooperatibatik alde egitea erabaki duela, ez isilik horregatik. Zurrumurrua dabil “kristorenak eta gehiago botako dituela” egoera ahalik eta gehien tenkatzeko.

Kepa (langile bat) soldata igoera eskatzera joan zen ostiralean, ez zaio onartu, eta gaur ez da lanera etorri, bajan dago.

ETA GEHIAGO
ETA GEHIAGO...





- Ia eguerdiko hamabiak dira, eta oraindik ordenagailua piztu ere ezin izan du egin. Iruditzen zaio ia hiru ordu daramatzala galdurik, baina oso kezkatuta dago halaber erakundearen jende asko egongo delako gatazka horiekin eta beste hainbatekin “entreteniturik”; hori dela eta, beldur da oraindik lanean hasi gabe egongo ote diren (nahiago du plantilla osoa galtzen ari den denbora horren kostua ez kalkulatu, gehi absentismoaren kostua, etab.)
- Baina okerreana da ez daukala oso argi gatazka horiei ERAGINKORTASUNEZ aurre egiteko modua zein den, eta batzuetan uste du erakundearen dinamikaren parte izango direla, eta: “NORMALA IZANGO DELA”.

ASTELEHENEKO ONDORIOAK:

Erakunde guztiek dituzte gatazkak.

Gatazka egoerek kostu handia dakarte erakundeentzat (frogatuta dago lanaldiaren %30 eta %50 artean “alferririk galtzen” dela lankideekin gertatzen ari diren egoerez hitz egiten. Eta kalitatea ere galtzen da, erabakiak hartzeko behar bezain kontzentratuta ez egoteagatik, absentismo indizeak eta langileen errotazio indizeak handitzen dira, etab.).

Jonek beti pentsatu izan du horrelako egoerak ohikoak direla edozein erakunderen barruan, dinamikaren parte direla, eta ez dagoela egoera hobetzeko ezer egiterik.

Ez du etsi nahi, ordea, eta, pentsatzen jarrita, gogoratu du ezagutzen duen eta ondoko kooperatiba batean lanean ari den pertsona bat –Andoni– gatazkak konpontzeko programa bat ezartzen hasita dagoela; nonbait, programa oso interesgarria izaten ari da, eta egoera gatazkatsuek murrizten laguntzen ari da eta, ondorioz, erakundearen errendimendua eta errentagarritasuna hobetzen. Horrenbestez, animatu egin da eta deitu egin dio, bilera bat egiteko.



II. KAPITULUA:

ASTEARTEA,
IKUS DEZAGUN
EA GATAZKAK ULERTZEKO
MODURIK DAGOEN

Al **Ar** **Az** **Og** **Or**





II. KAPITULUA: ASTEARTEA, IKUS DEZAGUN EA GATAZKAK ULERTZEKO MODURIK DAGOEN

Jonek Andoniri hots egin dio eta bisita egitekotan geratu da, erakundearen zer-nolako ekintzak egiten ari diren bertatik bertara ikusteko, izan dezaketen eraginkortasuna ezagutzeko eta baloratzeko bere kooperatibaren horietakoren bat ezar litekeen.

Elkarrekin daudenean, Andonik berari gauza bera gertatzen zitzaiola kontatu dio. Batzuetan pentsatzen zuen egun osoa ematen zuela suteak itzaltzen saiatuz, eta ez zuela benetan horiek konpontzen laguntzen, kasurik gehienetan betikotu egiten baitziren.

Gainera, Joni esan dio antza denez kontua okertu egingo dela, Warwickeko unibertsitateko Industrial Relations Research Init-eko ikerlariak diren Edwars eta Scullionek diotenez: “LAN HARREMANAK LAN PROZESUA KONTROLATZEKO PRAKTIKA, EKINTZA ETA ESTRATEGIEN MULTZO GISA ULERTU BEHAR DIRA. DENA DELA ERE, KONTROLAK GERO ETA ARAZO GEHIAGO DITU, PERTSONOK GURE INTERESEI BURUZKO KONTZIENTZIA HANDIAGOA DUGULAKO, ETA LEHENTASUNA GURE PROIEKTU PERTSONALEI EMATEN DIEGULAKO. GERO ETA GUTXIAGO ONARTZEN DUGU ZENBAKIAK BAGINA BEZALA TRATA GAITZATEN. ERRESISTENTZIA HORREK GATAZKA BIHURTZEN DEN DESOREKA BAT SORTZEN DU. GATAZKAREN EXISTENTZIAREN ADIERAZLERIK ARGIENETAKO ZENBAIT DIRA ABSENTISMOA, SABOTAJEA, ENPLEGUAREN ERROTAZIOA, LAN EGITEKO ERITMO MOTELA, ISTRIPUAK ETA BESTE HAINBAT”.

Andonik kontatu du gatazkak konpontzeko prozedurei buruzko informazioa jaso zuela, txiripaz, eta horrek hobekuntza nabarmena ekarri duela kooperatibaren gestioari dagokionez. Hasieran ez zuen guztiz sinesten, baina egiaztatu egin du benetan eraginkorrak direla.



Jonek galdetu dio Andoniri horiek zer diren eta nondik has daitekeen. Andonik erantzun dio onena pausoz pauso joatea dela:

LEHEN PAUSOA:

EGOERA ULERTZEA.

GATAZKAK KUDEATZEKO PRESTAKUNTZA.

Prestakuntza hau kooperatiban beren ardurapean pertsonak dituzten lagun guztiek hartu zuten. Helburua da egoera gatazkatsuk ulertzen eta diagnostikatzen ikastea, edo behintzat pertsonen artean tentsioa sortzen duten egoerak, gatazka agertzen den bakoitzean noraezean ez ibiltzeko.

Prestakuntzak gai honi buruzko informazioa lortzea ahalbidetu zuen:

EDOZEIN TENTSIO EDO GATAZKA EGOERAK DITUEN ELEMENTUAK. ETA INTERESGARRIA IZAN ZEN EGIAZTATZEA ELEMENTUAK GUTXI DIRELA, ETA OSO ERRAZ DIAGNOSTIKATU ETA ULER DAITEZKEELA.

Horrenbestez –Andoniren hitzetan–, jakin ahal izan dugu **GATAZKAREN KAUSAK BOST** direla soilik, eta egoera bakoitzean garrantzitsua dela kausa zein den jakitea, batez ere aurre egiteko metodoa horren arabera izango delako:

- Andonik adierazi duenez, Jonek aipatzen dizkion gatazkak aztertuta, hau da, kooperatiban gaur egun dituzten gatazkak aztertuta, esango lioke askotan absentismo egoerek goikoekin dagoen **HARREMAN GATAZKA** batekin zerikusia dutela, horrek desmotibazio handia sortzen baitu langileen artean.
- Adibidez, Andonik Joni dioenez: *“kontatu didazun bi pertsona arduradunen arteko gatazka, hau da, produkzio saileko baten eta sail komertzialeko beste baten artekoa, itxura guztien arabera, **GATAZKA ESTRUKTURALA** da, garaiz bideratu ez delako, azkenean, harreman arazo bihurtu dena. Ondorioz, bi sailen arteko lanaren eta komunikazioaren antolamendua hobetu behar da, harreman profesionalaren alderdi hori ahaztu gabe, bestela, elkarrekin egin behar duten edozein ekintza ezinezko bihurtuko baita. Baina baita ere ikasi dugu –jarraitzen du Andonik– une honetan gatazka oso sustraituta dagoela, bien artean tentsio handia dagoela eta, horregatik, oraingoa ez da elkarrekin bilera bat egiteko une egokia izango. Tentsio maila horretara iritsiz gero, gaizki ulertuak hain dira handiak, pertsonen artean frustrazio handia sortzen da”.*



- Interesgarria izan zen baita ere ohartzea, egoera askotan, pertsonen kudeatzaileek esku hartzen dugunean lagundu egiten dugula gatazka handitzen eta azkenean lehertzen edo kronifikatzen. Arriskutsuena zera da, baldintza horien berri ez dakigunez, gainerako pertsoneri leporatzen diegula gertatu denaren ondorioen errua. Prestakuntza saioan jokatzeko modu desberdinak eta gure agresibitatea eta beste pertsonena kontrolatzeko bideak erakutsi zizkiguten, bilerak egiazki eraginkorrak izan daitezen, landu nahi den edukia garatuz, eta ez haserreak bultzatuz.

JON: “Eskerrik asko, Andoni. Egia esan, ez nekien gatazkek hainbat osagai **ANTOLATU** zituztela, eta horiek uler daitezkeela eta, ondorioz, eraginkortasunez gestiona daitezkeela. Orain joan egin behar dut, baina animatuago noa”.

ANDONI: “Nahi baduzu, bihar inguratuko naiz zure lanera, eta tarte bat eskainiko diegu **EGOERA GATAZKATSUEI** aurre egiteko moduei”.

JON: “Bikain. Orduan, bihar elkar ikusiko dugu”.



ASTEARTEKO ONDORIOAK:

Gatazkak, lausoak eta konplexuak diruditen arren, gako gutxirekin erraz ulertu eta erantzun daitezkeen egoerak dira.

Horiek ezagutzeko prestakuntza txiki bat behar da. Prestakuntza horren oinarriak dira: Gatazka bat zer den jakitea, zer elementu dituen, mota bakoitzari zer tresna ezarri behar zaion, gatazkak zer dinamika daukan –horrek aukera ematen baitu gertatuko diren gauzei aurrea hartzeko–, gure portaerak –eta besteenak– egoera hobetzen edo okertzen lagun dezakeela jakitea, eta zein momentutan esku hartu behar den jakitea.



Al Ar Az Og Or

III. KAPITULUA:

ASTEAZKENA.

DENA EZ OMEN DAGO
GALDUTA.

EGOERA ULERTU ETA
GERO, HORI

BIDERATZEKO TRESNAK
ERE BADAUDE





III. KAPITULUA: ASTEAZKENA. DENA EZ OMEN DAGO GALDUTA.

EGOERA ULERTU ETA GERO, HORI KONPONTZEKO TRESNAK ERE BADAUDE

Andoni Jonen enpresara joan da oraingoan, eta hura zain dago ea zer kontatzen dion. Gaur erakundeetan gatazkak konpontzeko hurrengo pausoari buruz hitz egingo dute.

BIGARREN PAUSOA:

GATAZKAK KUDEATZEKO-KONPONTZEKO TRESNAK EZAGUTZEA,
horiek ulertu eta diagnostikatu eta gero.



ANDONI: “Gatazkak konpontzeko prozedurak askotarikoak dira. Ohikoena, eta horri buruzko informazioa emango dizut gaur, **NEGOZIAZIO**aren prozedura da. *NEGOZIAZIOA, HORRENBESTEZ, KOOPERATIBA BARRUKO EGOERAK KONPONTZEKO ZEIN KANPOKO EREMUAN AKORDIOAK LORTZEKO PROZEDURA BAT DA (GARRANTZITSUA DA NABARMENTZEA PROZEDURA BAT DELA, EZ DELA BILERA BAT).*”

Negoiazio honela ulertuko dugu: Bi aldek edo gehiagok akordio bat bilatzen saiatzeko egiten den prozesua, zehazteko horietako bakoitzak zer eman behar duen, zer jaso, zer egin edo elkarrengandik zer toleratu behar duen: jabetu behar dugu egunean zehar egiten ditugun jarduera negoziatzaile gehienak gure taldeekin egiten ditugula.

Andonik negoziazioa erakundeetan aplikatzeari buruzko **ADIBIDE** bat jartzen dio: “*Esan zenidanez, astelehenean jakin zenuen gatazka baten oinarria hau da: zuk profesional bikain, langile, arduratsu eta erakundeetan asko errespetatzen den pertsona gisa definitu duzun pertsona batek soldata igoera eskatu zuen.*”



DESKRIBATU DUZUNEZ, ESZENA HONELAKO ZER EDO ZER IZAN ZEN:


KEPA: “Aizu, soldata igotzea behar dut, mutilak ikastera kanpora joan nahi duela- eta diruz estu samar ibiliko naiz eta”.

GIZA BALIABIDEETAKO ARDURADUNA: “Bada, zaila izango da, igoerak otsailean hitzartu eta egiten baitira, badakizu, eta orain igotzen badizut, bihar igoera nahi duten pertsonen ilara izango dut aurrean jarrita, eta ez du konturik nahi”.

KEPA: “Jota utzi nauzu. Ez nuen espero bazterrean uztea. Bizitzan behin gauza bat eskatu eta, begira nola eskertzen didazun. Ez didazu igotzen ez duzulako nahi, baina etorriko zarete eskean, eta ikusiko duzue nora bidaltzen zaituzted”.



ESZENA HORI BERA BESTE MODU BATERA GESTIO DAITEKE, NEGOZIAZIO PROZEDURARI JARRAITUZ GERO:



Kepak eta Giza Baliabideetako arduradunak mahai gainean ipini dutena, teknikoki, **JARRERAK** dira. Negoziatzea da jakitea jarreretatik abiatuta ez dela erraza adostasunera iristea, are gehiago, ia ezinezkoa dela. Beste elementu batera jo behar da, eta horri, negoziatioaz ari garelarik, **INTERESAK** esaten zaio (ez du zertan derrigor hitz horrekin esan nahi dugunarekin bat etorri). Interesa da eskatzen duguna (**JARRERA**) eskatzeko dugun arrazoia. Adibidean ikusiko dugu.

	KEPA	ENPRESA
JARRERA	IGOERA NAHI DUT.	EZ.
INTERESESAK	DIRU GEHIAGO BEHAR DUT SEMEAK KANPOAN IKASTEKO.	EZ DUT NAHI IGOERA AURREKARI BIHURTZEA.

Ikus dezakezunez, Jon –dio Andonik–, normalean jarreretatik saiatzen gara akordioetara iristen (igoera nahi dut; bada ez), baina maila horretan ezinezkoa da, ez dagoelako negoziatzeko tarterik. Edozein konponbidetan, nahitaez, planteamendu bat besteari gailendu behar zaio, eta horrek enfrontamendu handia eragiten du.



Beharrezkoa da interesen eszenatokitantz jotzeko gaitasuna izatea –horretarako negoziatioari buruz jakitea eta praktika pixka bat baino ez da behar–, eta eskaerak bateragarriak izan daitezkeen gune bat sortzea lortuko dugu –interesak–, honela:



	KEPA	ENPRESA
INTERESESAK	DIRU GEHIAGO BEHAR DUT SEMEAK KANPOAN IKASTEKO.	EZ DUT NAHI IGOERA AURREKARI BIHURTZEA.
AUKERAK	KATEGORIA IGO. IGOERA ADOSTU ETA OTSAILERA ARTE EZ GAUZATU. APARTE ORDAINDUKO DEN LAN ESTRA BAT EMAN. AURRERAKIN BAT EMAN. SEMEARENTZAKO BEKA BAT EMAN.	

Aukerak adostasunera, konponbidera iristeko aukerak dira. Ez du esan nahi ideia horiek guztiak egin ahal izango direla, baina seguru horietakoren bat (edo batzuen konbinazioa) praktikan jar daitekeela.

HORREKIN, BI ALDEAK ASEBETETA GERATZEN DIRA, IZAN ERE, EGOKI KUDEATUTAKO GATAZKEK ALDERDI POSITIBO UGARI DUTE (MORALES F. ETA YUBERO, 1999).

- Egoki kudeatuta, identitate pertsonala zein taldearena sustatzen du, taldean konpontzen bada eta emaitza asegarria bada (hori da gakoa).
- Egoki kudeatuta, bideak zabaltzen laguntzen du eta, batez ere, komunikazio estilo eraginkorrek eta iraunkorrek ezartzen.
- Eta, egoki kudeatuta, aldeen arteko konfiantza sustatzen du, desberdintasunak nabarmendu beharrean antzekotasunak nabarmen-tzen baitira.
- Ongi kudeatuta, aldaketa pertsonal eta sozialerako motorra da. Egin beharreko aldaketak egiten laguntzen du, berrikuntzak, etab.



ASTEAZKENEKO ONDORIOAK:

Kontuan hartuta erakundeentzat zer-nolako ondorio positibo eta beharrezkoak dituen, ez da operatiboa hori baztertzen saiatzea. Gakoa da egoki kudeatzen ikastea.

Negoziatzeko estilo hau Negoziazio Eraginkorrerako Harvard programan oinarrituta dago (Fisher, 1997), eta erakunde barruko gaitasun gisa inplementatu behar litzateke. Lan egiteko ohiko tresna bihurtu behar litzateke, lankidetzazko inguruneak sortzeko eta harreman harmoniatsuak mantentzeko.



Al Ar Az Og Or

IV. KAPITULUA:

OSTEGUNA.
ASTE HONEK ITXURA
ONA DU.
GATAZKA ULERTU
ETA KONPONTZEN IKASI
ETA GERO,
ERAKUNDEAREN
BARRUAN GATAZKAK
KONPONTZEKO
PROZEDURA BAT
SORTUKO DUGU





IV. KAPITULUA: OSTEGUNA. ASTE HONEK ITXURA ONA DU. GATAZKA ULERTU ETA KONPONTZEN IKASI ETA GERO, ERAKUNDEAREN BARRUAN GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURA BAT SORTUKO DUGU

Gaur Jonek honi egin beharko dio aurre

HIRUGARREN PAUSOA: ETA HORI DA KOOPERATIBA BARRUAN GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURA BAT NOLA EZARTZEN DEN,


horretarako, Andonik eman dizkion dokumentuak aztertu ditu, bertan esaten denez:

Erakundeak gero eta arduratuago daude kalitate hobetzeari dagokionez. Horretarako, enpresek ohiko jarduerak egiteko prozedurak erabiltzen dituzte, lana behin eta berriro asmatzen ez aritzeko. Hortik aurrera, jarduera hobetzeko kezka ezartzen da.

Egoera horiek aprobe txatu egin daitezke gatazkei erantzuteko prozedurak garatzeko, eta horien barruan jaso dira:

- KOOPERATIBAN GERTATZEN DIREN EGOERAK, ERANTZUN BEHARREKO GATAZKATZAT HAR DAITEZKEENAK.
- ZERGATIK GERTATZEN DIREN, ZER ALDATU BEHAR LITZATEKEEN ULERTZEA.
- “BIDE” BAT MARKATZEA, ERAKUTSIKO DUENA NOR INFORMATU BEHAR DEN, NOLA ETA NOIZ, ETA NOLAKO ERANTZUNAK EMAN BEHAR DIREN.
- GAIARI EMAN BEHAR ZAIZKION ONDORIO POSIBLEAK.

Horrekin, erakundeen barruan gatazkek konpontzearen balioa agerian jartzen da, eta sentsibilizatu eta gatazkei eusteko jarduerak arautzea lortzen da, hau da, langileen esku liskarrei erantzuteko formula eraginkor bat jartzen da, eta marmarrak saihesten.



Prozedura hori egiteko lan talde bat sortu behar da, ahal dela, erakunde osoko arlo guztien ordezkariak izango dituen.

EGIA ESAN, JON DAGOENeko OSO GUSTURA DABIL AU-
RRE EGIN BEHARREKO ERRONKAREKIN: BERE ERAKUN-
DEKO GATAZKAK ERAGINKORTASUNEZ GOBERNAT-
ZEA. HORREKIN BADAHI PERTSONEN ERRENDIMENDUA
HOBETU AHAL IZANGO DELA, BATZUETAN %30ERAINO,
ETA HORRI OSO EGOKI DERITZO.

Baina Andonik esan dio baita ere zenbait gatazka ezin direla erakundearen barruan gestionatu. Horretarako profesionalak daude, gatazkak ulertu, erantzun eta konpontzen dituztenak, inplikaturik dauden pertsona guztien partaidetzarekin: bitartekariak dira.



OSTEGUNEKO ONDORIOAK:

Aukera ugari dago erakundeetan gatazkari buruz lan egiteko. Ulertu eta kudeatzeaz gain, gatazkak bideratzeko prozedura bat landu dezakegu, ondorio negatiboak saihesteko eta positiboak bultzatzeko.

Halere, ekintza gehiago egin daitezke, esaterako:

- Gatazkak konpontzeko lana barruko Erantzukizun Sozial korporatiborantz bideratzea, izan ere, gatazken kudeaketa egokiak lagundu egingo die erakundeei barne Erantzukizun Sozial korporati-boaren alderdi funtsezkoetako bat hobetzen: pertsonen kudeaketa.
- Gainera, erakundeetan egon daitezkeen gatazka zehatz eta konplexuei buruzko diagnostikoak egin ahal izango dira (adibidez, absentismo maila handia, erakundearen jardura egokia galarazten duten sailen arteko edo sail barruko enfrentamenduak...).



V. KAPITULUA:

OSTIRALA.
BITARTEKARITZA
PROZESUA

Al Ar Az Og Or





V. KAPITULUA: OSTIRALA. BITARTEKARITZA PROZESUA

▪ **BITARTEKARITZA** GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURA BAT DA, ZEINEAN HIRUGARREN PERTSONA BATEK, ALDEEI ETA GAIARI BURUZ INPARTZIALA DENAK, LAGUNDU EGITEN DIEN BI ALDEEK ONARTUKO DUTEN KONPONBIDE BATERA IRISTEN.

▪ Esku hartzen duen hirugarren pertsonak –bitartekaria– aldeei laguntzen die garatzen ari diren negoziazio prozesuan, baina aldeei uzten die konponbidea erabakitzen. Inola ere ez du irtenbiderik proposatzen edo erabakitzen.

▪ Kooperatibetan bitartekaritza erabiltzearen helburua da **ELKARREKIN ERABAKITAKO AKORDIOAK BILATZEA**, gatazka hain bizia delako, komunikazioa ia ezinezkoa gertatzen denean.



▪ Edozein pertsona ezin da bitartekari izan. Hasteko, guxtienez oinarrizko diplomatura edo lizentziatura behar da, baina funtsezkoa da baita ere gatazken kudeaketan eta bitartekaritzan prestakuntza egokia izatea, eta zein parametro etikoren arabera egin daitekeen jakitea. Euskal Autonomia Erkidegoan Bitartekaritza Lege bat dago, familiaren eremuari buruzkoa bada ere.

▪ Bitartekaritza lana kooperatibarentzako baliabidea izan dadin, funtsezkoa da aldeetako bakar batentzat ere arriskurik ez egoteko **KONPROMISOA** eta **SEGURTASUNA** egotea. Hau da, ez dela errepresaliarik izango gatazkek konpontzeko bide hori erabiltzeagatik. Garrantzitsua da bermatzea aldeek gatazkari aurre egiteko edo konpontzeko behar duten informazioa izango dutela, eta kanpoko aholkularitza jaso ahal izango dutela, gaiak hori eskatzen badu.

Kokapena kanpokoan izan daiteke. Kasu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatibek BITARTUK eskaintzen duen kanpo bitartekaritza erabil dezakete. Baina bitartekaritza zerbitzua kooperatiben barruan ere koka daiteke. Helburua da gatazkak garaiz detektatzea –diagnostikatzea– eta, jakina, gertatzen direnean bitartekaritza egitea. Funtsezkoa da erakundeko lerro hierarkikoei buruzko neutraltasun eta independentzi irudia sortzea eta, batez ere, ematen den informazioa konfidentziala izango dela eta ez dela beste helburu batzuetarako erabiliko bermatzea. Bitartuk, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatibetan bitartekaritza egiteko barne sistemak ezartzeko aukera ere ematen du.



BITARTEKARITZAREN PROZEDURA PRINTZIBIO HAUEKIN ARAUTZEN DA:

BORONDATEZKOTASUNA. Ezin da aldeetako inor bitartekaritza prozesu bati atxikitzea behartu. Prozesu bat hasita dagoenean ere, bertan behera uztea erabaki daiteke, planteatu ziren itxaropenak ez direla betetzen ari jotzen bada.

KONFIDENTZIALTASUNA. Bertan esaten den guztia konfidentziasunez tratatuko dela esan nahi du. Horregatik, pertsona bitartekaria ezin da epaiketara deitu aldeetako baten alde edo kontra deklaratzeko.

ERRESPECTUA. Bitartekaritzaren prozeduran ez da errespetu faltarik onartzen, gatazkak beharrik gabe areagotzea galarazteko. Errespetuak esan nahi du baita ere ez dela hitz egiteko txanda etengo, ahal den heinean.



INPARTZIALTASUNA. Pertsona bitartekariak ezingo dio alde bati lagundu bestearen kaltetan, eta saiatuko da alde bati bestearen mesedetan ari dela pentsaraziko dion iruzkinik edo adierazpenik ez egiten.


IZAERA PRESENTZIALA. Gatazkan dauden aldeek zuzenean parte hartu behariko dute. Taldea bada, ordezkaritza baten bidez joan ahal izango da.

LEGEA EZ URRATZEA. Bitartekaritza ezin da erabili legezko printzipioak urratzeko; horrenbestez, ezin da legeak beste erakunde bati esleitu dizkion gaitan jardun, eta ezin da nabarmenki ilegalak diren akordioetara iritsi.

FEDE ONAREN PRINTZPIOA. Bitartekaritza soilik erabiliko da alde guztientzat mesedegarriak izango diren akordioak lortzeko.

MALGUTASUNA. Ez dauka prozedura zurrun bat, hau da, aldeen ezaugarriei eta horien beharrei egokituko zaie.

BITARTEKARITZA PROZESUAK HAINBAT FASE DITU, FASE BAKOITZAK HELBURU BAT, ETA BEHARREZKOA DA DIZIPLINAKO PROFESIONALEK EZAGUTZEN DITUZTEN HAINBAT “TRESNA” ERABILTZEA.





ASTEKO ONDORIOAK:

Astea arazo dezenterekin hasi zen, baina oso interesgarri bihurtu da, Jonek aukera izan baitu ezagutzen ez zuen eremu batean sartzeko.

Jonek asmo sendo batekin amaitua du astea, hau da, bere kooperatiban ager daitezkeen gatazkak ulertzeko eta eraginkortasunez konpontzeko lanean hasi nahi du, eta beharra izan dezaketen pertsonen bere esperientzia kontatu nahi die. Lehenengo aldia izango da, baina astelehena noiz iritsiko zain dago.



BIBLIOGRAFIA



- Echeverria, R. (2003). *La Ontología del Lenguaje*. Santiago de Chile: J.C. Sáez Editores.
- Edwards, P.k. y Scullion, H. (1987). *La organización social del conflicto laboral. control y resistencia en la fábrica*. Madrid: Centro de Publicaciones Ministerio de Trabajo y Seguridad Social.
- Femenia, N. [<http://www.inter-mediacion.com>]
Fecha de consulta: 23/11/2009.
- Fisas, V. (1998). *Cultura de Paz y Gestión de Conflictos*. Barcelona: Icaria, Antrazyt UNESCO.
- Fisher, R. y Ertel, D. (1997). *Obtenga el sí en la práctica. Cómo negociar paso a paso ante cualquier situación*. Barcelona: Gestión 2000 S.A.
- Lederach, J.P. (1994). *Educación para la Paz*. Barcelona: Fontamara.
- Lederach, J.P. (1998). *El abc de la paz y los conflictos. Educación para la paz*. Madrid: Catarata.
- Morales, F. y Yubero, S. (1999). *El grupo y sus conflictos*. Ciudad Real: Universidad de Castilla-La Mancha, Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- Perrow, C. (1993). *Sociología de las Organizaciones*. Madrid: McGraw.
- Rojas, L.(1998). *Las Semillas de la Violencia*. Madrid: Espasa.
- Saner, R. (2003). *El experto Negociador*. Barcelona: Gestión 2000 S.A.

KOOPERATIBEN GATAZKAK ULERTZEA ETA ERANTZUTEA, ASTE BATEAN

EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA. BITARTU.

